

*Teresa Deunaren erantzuna  
bere egunetako eta gaurko problemei*

Teresa Deuna ta bere denpora, gu ta gure denpora, aren eta gure buruausteak, aren erantzuna eta gurea: gai auxe erabiliko dogu emen. Teresa ta bere erantzuna ikusi ta ausnartuz, mundu argi bat iregiko jaku begi aurrean; ez gero bera Santa bat izan zalako bakarrik, ezta emakume izan zalako be setsuz, bere Jainko-experientziz, aren nortasuna, mundu guztiarentzat gora ta garrantzi aundikoa gertatu zalako baiño.

Mundu osoa artzen dauana da Teresa emakume eta deun lez, ez gaztelar naiz judutar dalako bakarra; Teresa bere Jainkotasunaren bidez, bere emakumetasunaren bidez, osooan, danontzat izan zan, eta da gaur be: bere garaiko arduraz, izerdiz, burrukaz, zorotasun, akats eta besteakaz.

Emakume agertzen jaku Teresa, ez baiña bere denporako emakumerik geienak lez. XVI'garren gizaldiko emakumek eskubide gitxiko ziran gizarte aurrean. Emakume izatea, geien eritxiz, zer-edo-zer egiteko be akats aundi bat eukitea zan. Gaur-egunean esan danez, bere aita jatorriz judutar zan; eta izate onek problema aundiak sortzen ebazan. Jainkoak Teresa'ren biotza, ikutu gozoz, aldatu ta mistika osiñean murgilduz garbitu ebala be esan bearrean gagoz.

XVI'garren gizaldia zer zan, konturatu bear gara, edo zer akats eukitea zan zer-edo-zer egin gura ebanarentzat, emaku-

mea naiz mistika ba'zan batez be. Oneri buruz istori-gille batzuk azkenengo 30 urteotan ederto azaldu ta argitu dabez gauza asko. Ikus onako liburu batzuk, jakingarriak dira-ta: AMÉRICO CASTRO, *España en su historia (Cristianos, moros y judíos)*, Buenos Aires 1948. ANTONIO DOMÍNGUEZ ORTIZ, *Los judeoconversos en España y América*, Madrid 1971; *La clase social de los conversos judíos en Castilla en la Edad Moderna*, Madrid 1955. A. SICROFF, *Les controverses de 'purité' de sang*, París 1960. JULIO CARO BAROJA, *Los judíos en la España moderna y contemporánea*, II, Madrid 1962. BARTOLOMÉ BENNASSAR, *L'homme espagnol. Attitudes et mentalités du XVI<sup>e</sup> au XIX<sup>e</sup> siècle*. París 1975. TEÓFANES EGIDO, *Ambiente histórico* (in: *Introducción a la lectura de santa Teresa*), Madrid 1978, 43-103 orr.

Alan eta guzti be, Teresa'gan, buru-auste guztien gaiñetik kemenez beteta ebillen emakume bat ikusten dogu; beste itz batzuekaz esan, arriskurik arrisku ibilli, izerdi asko ta odol ugari galdu arren, Teresa beti agertzen jaku emakume sendo, jakintsu eta ausarti.

### **Bazter itxien eta zapalduen erantzuna**

Gaur dakigunez, eta ez eskolako liburuak erakutsita, etzan Espaiña'n XVI'garren gizaldi barruan olako giro baketsua; gaur ba-dakigu sozial kontuan zelako burrukak egozan, zenbat ziran bazter itxiak edo marjinatuak be. Eun millaka bizi ziran orduan arabetar eta judeguak, arabefarrak euren eskulanez erria aberasten eta judeguak euren egiteko bereziekin Espaiña'ko kultura osoa goratzen. Olan be bazterturik bizi ziran oneik!

Elizak berak be, gizadiko alaba zanez, parte artua eban ortan; Praille-ordenak ez eben praille naiz abade izateko judegu-kristau odolekorik, artu nai izaten. Espaiña'k, Gaztelaniak batez be, arrokeriz itsu, ez eukan kristau-judeguekin konfiantzarik. Egia esateko, Elizaren aldetik be, Teresa'ren gizartea «burlots baltzakaz» gaixotua egoan. Eliz-buruak eta erakundeak ez eben Kristo'ren autormen onik emoten. Olan da be an ikusten dogu XVI'garren gizaldiko jakitun, santu

ta idazlaririk aundienetakoak, gizartetik albora itxitakoak ain zuzen, onetxek osotu ta goratu eben gaur Espaiña'k arro-  
arro esaten daben «euren» gizaldi aundiena.

Esan dogu: gizarteak ezezik, prailleak be euren Ordenako izan nai ebenai «odol-garbitasuna» eskatzen eutsiela an eta emen, azkenez karmeldarrak be orixe berori egiten asirik. Karmeldar mojak, Teresa'ren alabak ez orraitifio. Euren lege ta bizitzan ez eben ori ondo ikusi. Onek Teresa deunaren eta beronen mojen aintzarako, gizarte kondairan argi agertu bear leuke.

Geroago Frantzia'n be, moja-gaiak artzerakoan, euren artean eta komentuetan ereje izandako emakumerik ez artzeko asmoa ta burruka sortu zanean, an aurkitzen zan Teresa'ren adiskide miña ta sekretaria, Ama San Bartolome zorionsua, eta onek babestu eban Teresa'ren ondarea, Jainkoaren deia euken emakume guztiak, iñortxo be baztertu barik, komentuan pozik artuaz. Teresa ilda gero, karmeldar prailleak, XVI eta XVII'garrenean Espaiña'ko gizarte barruan, batzuk, arro ta gaixo, pentsetan eben euren Ordenako bizitza ain bikaiña, beste naziñoetan ez zirala gauza, ganoraz eroateko. Baiña Teresa'ren alabak, batez be Ana San Bartolome'k, etziran eritxi orretakoak, eta komentu barriak jaso ebezan Frantzia'n, Beljika'n, eta abar. Espaiñar gizarteko ideia gaixoak, Teresa'k eta onen alabak osatu ebezan, euron egiazko bizitza ederraren erakuspen jatorra emonaz.

Or ikusten doguz argi Teresa ta mojak, Eliza biotzez eta odolez maitatzen. Naiz-ta Inkisiziñoa be batzutan euren atzetik ibilli, or egoan Teresa Inkisiziñoko gizonak oso-osorik maitatzen. Eta pozik euren Eliza goratzen, indartzen eta erabarritzen. Erresumin eta erresentimentu barik ain zuzen be, naiz-ta euren buruak baztertuak ikusi, beti gogoz maitatzen; ez apurtzen, osotzen baiño; ez itxuraz euren aurka eukezan eliz-gizonak beeratzen, txalotzen baiño.

Emen ikusten dogu Teresa'k eta bere alabak zelako erantzuna emon eutsen —osasungarrizkoa nik uste— orduko buru-auste eta problemei. Ez dogu uste izan bear euskaldunok gu gareala bakarrik zapalduak —eta izango gara—, gu bakarrik ez

gareala asko sufridutakoak. Neke-miñoi Teresa'k eta aren denporakoak emondako erantzuna ez da gaur, Euskalerrian, askok emon oï dabena. Gaur, au dogu lege: etsaia jo ta apurka, baltzitu olakoen izena. Ez da ori erantzun egokia, amorruzkoa baiño. Au da egin bear leikena: zuzenean aurka egin barik, etsaien txingar gaiñez salto egin eta kemen aundiagoz balioko gauzak burutu.

Teresa'ren denporako bazter itxiak eta zapalduen problemak eta gaurkoak bardiñean ipiñi ba'dagiguz, laster ikusiko dogu zelan sortzen diran soluziño edo askapenak. Eta zelan argi dagian gure nortasunak kondairan zear. Franko'ren garaiko euskal Elizak (eliz-buruak batez be) itxi ebazan akatsak ikusiaz (euskal kultur arloan nai ba'dozu), ez eliza itxiaz, ezta elizatik urtenaz be, ez da ezer obeago danik egiten; bai, ostera, akats orreïn gaiñez Eliza osatuaz, maitatuaz, indartu ta aldatuaz; orreïn gaiñetik balioko egiñak sortuaz, eta abar. Teresa'ren denporan marjinatuak berbiztu ta goratu eben Eliza. Eta onela eurak egin dira kondairan Elizaren buru ta zuzendari. Or Santa Teresa eta Gurutzeko Jon Deuna, karmeldar aundi biok baiño ez aitatzeke. Eta auxe da Euskalerrarentzat ejenplorik ikusgarriena.

#### Lan-billa eta mundu barriak aurkitzen

Ez bakarrik gaur, Teresa'ren egunetan be ba-egoan lanaren problema. Orregaitik, diru-zaletasunak eraginda —edo-ta urez andik zer barri izan jakin-naiak zirikatuta— Teresa'ren nebak be Ameriketara joan ziran, beste espaiñar asko ta askoren antzera, eta ortik sorturiko problemak gaurko emigranteenak lakoak dira: ordukoak, euren lanez, euren buruak sakrifikatu eta Espaiña'ri lagundu eutsoen; gaur divisakin *deficit* itzala osatu. Teresa'k au orrela ikusi ez ba'eban be, bere erantzuna, erantzun zintzoa, jaso ebazan komentuetan moja gitxigaz txirotasunean bizi izanaz emon euskun. Kristo eta aren Eliza oso-osorik maitatuaz, bere ta beretarren eskulanz txiro ta beartsu bizi izanaz. Gaurko lan gabeko denporan, emen be argi ikusi geinke, Elizaren pobre biziteaz nun dagozan berarizko baliokak.

Gizakiak gaur argi dakus —ikusiko daroa— gauza arrigarriak, inbentua, teknika kontuak, izarretaraino igoteak, gauza eder eta aundiak aurkitzea. Baita, esan bear, sarri bere burua arto ikusten dau, eta zerbait dalakoan bizi da. Gizona, zori txarrez, kanpoko aunditasunera doa, gizon baktaren barruaz aztuten dala; gizona, bere akatsak albora itxita, or dabilkigu arroputz, Jainkoa, Jainko-bizia ta beroa saiets itxita. Teresa'ren denporan Amerika aurkitua izan zan... A izan zan gizaldietan gauzarik aundienetarikoa. Eta orduan bai gizonak ifioiz baiño geiago euren buruak aundi ikusten asi zirala! An aurkituriko aberastasunakaz mundua menperatu gura, armaz eta urrez. Gauza aundiak aurkitu arren, gizonaren barru-bizia aztu, eta olantxe sortu zan askoren biotzetan utsune itzala. Gaurko gizartean ez ete da beste orrenbeste jazoten?

Teresa'k baiña, kanpora mundu barria aurkituaz lillurata egozalarik, leen ezagun etzan mundu bat aurkitu eban: biotz-barruko, muin-barneko mundu aberats zoragarria; barrura begira, Jainkoa aurkituaz, maitasunezko mundu beroa somatu eban, eta orren jabe egiñik, bere alabak eta beste asko aurkitze aintzagarri ortaz poztu ta aberastu eitezan, balio aundiko liburuz bere esperientziak eskintzen asi zan. Drogen premiña barik, bere nortasunean zoragarriro sendotu zan.

Teresa'k barrura jo eban, barruko ondasuntegira; eta barrutik atera zituan orduko jentekak bearrezko ebazan poza ta atsegiña, apurka apurka ingurukoak be poz-atsegin orrean gozotasunean murgildurik. Olan osatu ta indar-barritu eban bere garaiko nortasunaren krisisa. Olan erabarritu eban Ordena zaar bat, indar orren su-txiñarrak munduan zear zabalduko ebazana. Jainko-maitasuna baiño osakai edo medizina obarik ez bait dago gure nortasuna, erri baten nortasuna osatzeko.

Giza-biotzaren utsunea ezin leike kanpoko aunditasunaz bete, ez drogen ilusioaz, ez aalkolaz, ez kanpoko itxura utsalez: utsunea ezin leiteke utsuneaz bete. Teresa'k bere bizitzan ezagutu eban NORK biztu ta bete eutson biotza. Gaur, zorionez, gure gazteak be ikusten asi dira, or dagola utsune

au, eta utsune ori betetako leia, egarria gero ta biziagoa dala. Olako leiari, barriz, jarraitu egin bear jako, argiaren billa, nortasunaren billa.

Olako emakume gazte bat ezagutzen dogu Alemania'ko fazista denporan: Edith Stein. Judegua, erlejiñorik bakoa, baiña adiñekotu zanean batez be, egiaren billa asko saiatu zana. Filosofi-gaietan jakintsua zan, bere gai orreitazko liburuak argi diñoskuenez; gaurko agerkizun edo fenomenologiaren aztertzaile errime Edmund Husserl'en ikasle kutun eta laguntzaile, an ebillen Europa zear konferentziak emoten; emakumeak euren esku dirala-ta be, ez ebazan itzaldi gitxi otsegin. Bein Teresa Deunaren *Bizitza* bere eskuetan jauzi zan, eta gau baten, oso-osorik, asi ta amaitu irunsi eban Santa aundi arek idatzitako liburua, azkenean au esanik: «Emen dago egia». Andik laster bateoa artu eban, eta gero karmeldar egin zan. 1942'an, Hitler'en denporan, Auschwitz'eko gas-kamaran il eben.

Teresa'ren garaian lez gaur be billatzen alegindu ta barrura joaz aurkitzen da egiazko bizitza, norbere nortasuna. Eta orrek osotzen dau benetako gizona, benetako emakumea.

### **Arimak eta gauza baliotsuak**

XVI'garren gizaldian arimak salbatzeko ardura ta gar aundia sortu zan. Teresa'ren eta beronen alaben biotzetan batez be. Lorik be ezin eban Teresa'k egin ardura orregaz. Fedea, Kristo'gazko uste ona ta eleiztasuna bat bera ziran beretzat. Gure artean bardin, au izan da Euskalerriko aintzarik audienetakoa. Euskadi'n beti zaindu izan da, gizonezko eta emakumeen artean, arimenganako ardura beroa. Or millaka mixiolari gure lurak emonak! Goralgarriena dogu Xabier, euskalduna. Or agertzen da dizdizka euskal erriko fede-nortasuna.

Egiaz itz-egiteko, esan geinke, Teresa'k sar-azo eutsela euskaldunai alkar-maitasunaren gar ori, eta euskaldun seme-alabak ondoren edo erentzi eder lez artua dabela eurentzat ak biotzean sendo ekarren ardura. Gaur naiko galduaz doaki-

gu ardura ori, bai gizartean eta bai eleizan be. Krisisa sartu jaku, nortasunaren krisisa, eritxiko balioen krisisa, gaitzaldia.

Teresa'k, Jainkoagazko artu-emon barrukoan ikasi ta ezagutu eban gizakien balioa, zer diran eta balio dabean; baliotasuna gizonak ez dauko beragandik, besteakandik baiño: Jaunak bere maitasuna ta nortasuna gizonagan ipifiaz, mugarik ez dauan balioa artu daroa gizonak. Experimentzi onek berrizko nortasuna emon cutson Teresa'ri; orregaitik bere arimakanako ardurea, bizitza bera be emoteraiñoako ardurea. Gaur, esan geinke, egarri ori ez eukitetik benetako nortasunaren utsunea sortu oi jaku barruan.

### **Indarkeriak eta Teresa'ren jokera**

Amaseigarren eta amazpigarren gizaldietan, Europa'n eta batez be Espaiña'n, militarrek ebiltzan atertu barik armetan, indarraren indarrez mundua konpondu guraz, triskantza ta eriotza bazterretan ereiten. Asieran, gudate areitan, erlejiñoa be atxaki ta motibo zan, baiña gero geienbat Europa'ko nazionalismuak eta gizarte-auziak ziran egiazko motibu.

Eta gaur-egunean? Ia-ia bardintsu: militarrek, aruntz eta onuntz, euren indar-bizitzan atondu nai dabez sarri olako problema ta buru-austeak; ez konpondu gero, ito baiño. Eta zer dator ortik? Auziok garratzago egitea. Teresa'k ez ebazan argi ikusi olako problemak, bere fedeari ta zintzotasunari jarraika ebillen eta. Arek zuzen, indarkeri ta itxura uts-arroak albora itxirik, ixilleko bizitzara jo eban, mundu zirtzillarentzat ona aurkitu naiez. Karmel'go komentu txiki ta txiroetan, Europa'ren eta mundu zabalaren alde bere biotza Jaunari eskintzen; ez militarren pareko andra-gizonak derrigortzen, bere bizitza oso-osorik eskintzen baiño.

Indarkeriak gorrotoa dakar, eta gorrotoak nortasuna galtzen, fedea ta kristau-nortasuna. Norberaren kalterako dana, leen eta orain argi ikusten doguna. Teresa'ren joeraren eta orain bardintsu da; gaur be, lareun urte il zala izana-

gaitik, benetako nortasuna eskinka daukagu, barru-barrutik hortuz doan Jainkozko nortasuna. Orixe dala-ta txalotu izan dau Euskalerrriak, bero be bero, Aita Santuak Loiola'ra eta Xabier'era egiñiko osteran batik bat.

**Miña eta eriotza, gaurko tentaldi**

Gaur edozeñentzat, siñismena eldu barik daukenentzat batez be, eriotza ta miña tentaldi galantak dira, Jainkoari ez siñisteko; eta tentaldi ortan askotxo erre egiten dira. Edonok dakusanez, neke-miñez, gosez, gatzez, eriotzaz inguraturik gagoz... Zergaitik, diño gaurko gizonak... lenagokoak lez...

Or ebillen Teresa gaixorik, miñez jostia, azken amar urteetan buruko min aundiakin, beso bat ausita, gabero odola aotik botaten, lau ordu baiño geiago lotan egiten ez ebala, gorputz guztia elbarri, mindua... il be sabeleko bizienaz il zan. Alan be or ikusten dogu Teresa beti baketsu ta alai, bere barruko poza eta Jainkoagandiko bakea ingurukoei be erantsi nairik.

Guk bestera egin oi dogu askotan; Elizak edo abade-praille batek min emon edo eder ez jakun gauza bat esaten dauskunean, or gabiltz geure-geurea dogun Elizaren aurka, marmar otsean... Teresa'k asko euki ebazan aurkakoak, Nundio Gotzain, eliz-gizon eta besteak, komentua jasoten ebi-llela— eta. Alan eta gutzi be, Teresa'k gero ta maiteago zitu-uan Eliza eta eliz-gizonak.

Au ikusiaz, itaun bat dator gure barrutik: Nundik eukan Teresa'k ola jokatzeko kemena, nundik olako erantzuna emon al izateko indarra? Sartu daiguzan barrura geure begiak eta konturatuko gara.

Emen ikusi doguz labur-labur XVI'garren gizaldiko problema batzuk eta Teresa'k euroi emondako erantzunak. Gaur guri be, garai aretan lez, krisis gogorra gaiñ jausi jakula esaten dogu. Eta egia da. Nortasunaren gatxa, arrano arrapari antzean, gaiñ dabilkigu. Zelan astindu berau?

Teresa'k, jakituriz eta esperientziz, emakume aundi zala,



